
HERNANI. UDAL AURREKONTUAK 2017: Proposamenak egiteko saio irekiak PORTU

-2016-05-30. SAIOAREN AKTA-



BILERAREN XEHETASUNAK/ DETALLES DE LA REUNIÓN:

- Xede taldea/ *Grupo de trabajo*: Portuko herritarrak
- Data/ *Fecha*: 2015-05-30
- Lekua/ *Lugar*: Portuko auzo elkartea
- Hasiera ordua/ *Hora de inicio*: 19:00
- Amaiera ordua/ *Hora de finalización*: 20:00

DINAMIZAZIOA/ DINAMIZACIÓN:

- Parte hartzaile kopurua/ Número de participantes: 8 herritar, 6 emakume eta 2 gizon. 2 ordezkarri politiko.
- Ordezkarri politikoak: Luix Intxauspe, Koro Etxeberria
- Dinamizatzaileak: Arkaitz Martinez de Albeniz

1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA / BIENVENIDA Y PRESENTACION

Xabier Lertxundi, Hernaniko Udaleko zinegotziak, saioari hasiera eman dio. Aurtengoan ere Erabaki Hernani Decide prozesua martxan dago berriro. **Herritarrek Udal politika publikoetan duten partaidetza sustatzeko eta herritarren artean beste kultura politiko bat sortzeko** asmoarekin abiatu zen prozesua.

Aurtengo prozesuaren helburu garrantzitsu bat prozesua auzoetara gerturatu eta parte hartzea areagotu eta sendotzea izan da.

Prozesu hau, orain arte esan izan den legez, **urtez urte errepikatzeko asmoarekin** sortu zen. Aurtengoa hirugarren urtea dugu, eta urtetik urtera, prozesuan erabakigai jarriko diren atalak zabaltzen, sakontzen, etab. joatea da erronka

Alderdi ezberdinen artean adostutako prozesu bat izan da, eta beraz, Udalean ordezkariak duten 4 **alderdi politikoaren adostasunarekin** abiatzen gara, beraz, EAJ-PNV, PSE-EE, Orain Hernani eta EH Bilduren babesarekin du prozesuak. Modu honetan, prozesu honetan erabakitzen dena Udal Osoko Bilkuran onartua izango dela bermatuko da.

Prozesu honetako lanketa metodologiko eta teknikoaren ardura **Aztiker** Ikergunearen esku egongo da. Euren laguntza izango dugu dinamizazioan eta prozesuaren lanketa teknikoan.

*El concejal Xabier Lertxundi ha dado comienzo a la reunión. Este es el tercer año que se pone en marcha el proceso Erabaki Hernani Decide con el compromiso de mejora continua. Este proceso tiene como principal **objetivo incidir en la participación de la ciudadanía en las políticas públicas y crear otra cultura política y de participación.***

*Ha sido puesto en marcha con la **intención de repetir el proceso año tras año**, y de esta manera, poder ampliar la cantidad o las partes a decisión de la ciudadanía.*

*El proceso consta con un acuerdo entre las **4 principales formaciones políticas con representación en el Ayuntamiento**, por lo que cuenta con el apoyo y compromiso de EAJ-PNV, PSE-EE, Orain Hernani y EHBildu. Esto quiere decir que la conclusión de este proceso será aprobado en el Pleno Municipal por unanimidad.*

*Para la dinamización y trabajo metodológico y técnico de todo el proceso contaremos con **Aztiker** Ikergunea.*

Aurkezpenaren ondoren, aurreko bi urteetan Erabaki Hernani prozesuan atera ziren proiektuak errepasatu dira, eta hauen egoera aurkeztu.

Proposamenak hiru kategorien arabera aurkeztu dira:

Tras la presentación, el alcalde ha repasado la situación en la que se encuentran los proyectos decididos los dos años anteriores. Las propuestas han sido clasificadas en tres categorías:

EGOERA / SITUACION	2015	2016
Egina / <i>Realizados</i>	9	3
Martxan / <i>En ejecución</i>	1	9
Aztertzen / <i>Analizando</i>	2	8

EGINA / *Realizados*

Herriko parke eta kaleetan edukiontzi gehiago jarri (14 multzo inguru) / <i>Más papeleras en parques y calles (14)</i>
Herriko oztopo arkitektonikoak lantzeko Irisgarritasun partida handitzea / <i>Ampliar partida de accesibilidad</i>
Zinkoeneatik Floridako tren geltokiraino bidea argiztatzea / <i>Iluminar el camino de Zinkoene a Florida</i>
Indarkeria jasaten duten emakumeentzat arreta psikologiko eta juridikorako zerbitzua sortzea / <i>Creación de servicio de ayuda psicológica y jurídica para mujeres que han sufrido violencia</i>
Komun publiko bat gehiago jarri / <i>Poner más baños públicos</i>
Esertzeko banku gehiago jartzea (10 inguru) eta dauden batzuk altueraz igo / <i>Más bancos para sentarse (10) y elevar su altura</i>
Plaza Berriko lurra aldatzea ondoko kaleetan dagoen granitozko lurra jarriaz / <i>Cambiar el suelo de Plaza Berri</i>
Etxegabetze arrisku egoeretarako kreditu poltsa bat sortzea / <i>Bolsa de crédito para personas en riesgo de deshaucio</i>
Alokairua sustatzeko diru-laguntza / <i>Subvención para fomento del alquiler</i>
Argiztapena hobetzea Florida auzoaren goiko errepidean (99 portaletik 165era) / <i>Mejora de la iluminación en la zona alta del barrio Florida (portales 99-165)</i>
Kultura arloan diru partida handitzea haurrentzako ekintza kultural gehiago antolatzeke, batez ere 2-6 urte arteko umeentzat / <i>Aumentar partida de cultura para organizar más actividades culturales niños/as 2-6</i>
Udalak musika ekipo bat erostea (bi bafle eta mikrofono bat) bai udal ekimenetarako baita herriko eragile sozial ezberdinek antolatzen dituzten ekimenetarako ere. / <i>Comprar un equipo de música</i>

MARTXAN / En ejecución


Herriko haur parkeren bat estaltzea / <i>Cubrir un parque infantil</i>
Ezkiaga pasealekuko zoladura konpondu eta hobetzea/ <i>Arreglar y mejorar pavimento del paseo Ezkiaga</i>
Portu auzoan espaloi bat sortu Tuneletik Lonja bitarteko zatian oinezkoentzako babes gehiago izateko / <i>Acera para peatones en el Puerto entre el tunel y Lonja</i>
Biteriko areto nagusiko ekipoak errebisatu eta behar izanez gero berritu: soinu-ekipo, nahasketa-mahaia, proiektzio ekipoa, argiztapena,, mikrofonoak... / <i>Revisar equipos de la sala principal de Biteri y renovarlos si es necesario: equipo, mesa de mezclas, proyector...</i>
Sorgintxulo auzotik Jauregi eta Oronarantza doan bidea argizatzea oinezko asko ibiltzen baita bertatik eta ez dago argiztapenik / <i>Iluminar camino desde el barrio Sorgintxulo hasta Jauregi y Orona</i>
Sagastialde auzoko argiteria hobetzea / <i>Mejorar luminaria del barrio Sagastialde</i>
Hernaniko bi parke 0-3 urte arteko haurrentzat egokitzea. Egungo materialaz gain katuka dabilen haurrak arrastaka zutik jartzen hasi berriak... beste modu batera antolatutako espazioak elementu naturalekin sortuak plastiko gutxiagorekin / <i>Adaptar 2 parques de Hernani para niños/as de 0-3</i>
<i>Estrechamiento aceras Victor Hugo kalea Larramendi kalea 13, 15 y 17 para habilitar mas aparcamientos</i>
Saharako kazetari talde batentzat material informatikoa erosi eta bidaltzea (argazki kamera, ordenagailu portatila eta memoria txartelak) bertan bizi duten egoeraren berri informatzeko helburuarekin / <i>Comprar y enviar material informático para un equipo de periodistas de Sahara</i>
Karmelo Labaka kalearen erdialdean zebrabide berri bat egitea / <i>Paso de cebra en mitad de c/Karmelo Labaka</i>

AZTERTZEN / Analizando

Behar bereziak dituzten haurren integrazioa eta sorkuntza lantzeko diru-laguntza / <i>Subvención para integración y creatividad de niños/as con necesidades especiales</i>
Saskibaloian aritzeko kanastak jartzea altuera baxuan bai haurrentzat bai gurgildun aulkian daudenentzat / <i>Bajar la altura de canastas para niños/as y personas en sillas de ruedas</i>
Lurrean margotutako jolasak jartzea Atsegindegin / <i>Pintar juegos en el suelo de Atsegindegi</i>
Landare Tokiko errugby guneko berrikuntzak: 120 eserleku gehiago jartzea; Bidetxo bat egitea lehenengo zelaitik bigarrenera; eta zelaia txukun/garbi mantentzeko makinariaren erostea / <i>Renovación de espacios del campo de rugby Landare</i>
Kaxkoko eraikin historikoen fatxadetarako txizaren eta graffiten kontrako tratamendua ematea / <i>Tratamiento antigraffiti y orina en edificios históricos del casco</i>
Herriko hainbat lekutan oinezkoen lehentasuna ematea: Elkano-Nafar kaleko bidegurutzea; Aristizabal-Urbieta kaleko bidegurutzea; Latsunbe kalea-Urbieta kalea Marieluts elkartzen dituen bidegurutzea. / <i>Dar prioridad a peatones en algunos sitios del pueblo</i>
Urumea-Gay Murreko eraikinaren atzean Sandiusterri kalera igotzeko dagoen malda eta irisgarritasuna hobetzea / <i>Mejorar accesibilidad y rampa de acceso a c/Sandiusterri detrás del edificio Urumea-Gay Mur</i>
0-5 urte arteko haurrekin egoteko espazio itxi bat egokitzea Udalak / <i>Acondicionar un espacio cerrado para niños/as de 0-5</i>
Santa Barbara auzoaren sarrerako aldapan (harrobi bidean) harrizko euste-horma bat eraikitzea / <i>Construcción de un muro de contención en la entrada al barrio Santa Barbara</i>
Portuko tunelaren sarreran oinezkoak babesteko baden bat jartzea / <i>Poner un badén en la entrada del tunel del Puerto</i>

Aztikerreko dinamizatzailea den Maitane Barrenetxeak Udal Aurrekontuen inguruko partaidetza prozesu honek izango dituen fase eta urrats ezberdinak zeintzuk izango diren argitu du:

La dinamizadora de Aztiker Maitane Barrenetxea ha expuesto las fases de las que va a consistir el proceso:



Proposamenak egiteko **3 aukera**:

- **Interneten** www.erabaki.hernani.eus
- **Buzoiak**
- **Saio irekiak**: gaikako saioak (3), auzoetakoko saioak (8)

3 opciones para realizar propuestas:

- **Internet** www.erabaki.hernani.eus
- **Buzones**
- **Reuniones abiertas**: reuniones sectoriales (3), y reuniones de barrio(8)

Era berean prozesu honetako baldintzak gogora ekarri ditu ere / *De este modo ha recordado también las condiciones de este proceso:*

1. 2017ko Udal Aurrekontuaren **500.000€** del presupuesto municipal de 2017
2. Urtez urte errepikatzen diren proiektuak **50.000€**, **3 urtetik behin errebisatzeko** aukerarekin. / *Proyectos anuales (50.000€), posibilidad de revisión cada 3 años*
3. 500.000€en banaketa / *Reparto 500.000€*
 1. **300.000€ gutxienez inbertsioetara** / *Mínimo 300.000€ en inversiones*
 2. **200.000€ gehienez gastu arruntera** / *Máximo 200.000€ gasto corriente*
4. Proposamen bakoitzaren **aurrekontu muga: 166.000€** / *Límite presupuestario de cada propuesta: 166.000€*
5. Aurtengo edizioan prozesua auzoetara gerturatu eta auzoetako inzidentzia areagotzea da/ *El planteamiento de esta edición es acercar el proceso a los barrios y aumentar su incidencia en los barrios*
6. **Aurtengo irizpidea**: aurreko urteetan proposamenik jaso ez duten elkarte/gai/auzoak / **Criterio**: *no haber elegido propuestas en ese barrio/ámbito en ediciones anteriores*

2. EGOERAREN AZTERKETA / ANALISIS

Aurkezpenaren ostean, gaurkoan lantzeko izango ditugun gaien inguruko eztabaidari ekin zaio. Honetarako auzoaren eta Hernaniren, orohar, inguruko azterketa burutu dugu partaide desberdinen artean, galdera nagusiei erantzunda: / *Tras la presentación, se ha abierto una ronda de debate sobre esta temática. Para ello, se ha realizado un análisis general sobre el ámbito social respondiendo a estas preguntas:*

- Gaur egun auzoan dagoenaren inguruan **zer AZPIMARRATUKO zenuke?** / *¿Que SUBRAYARÍAS sobre lo existente a día de hoy en el barrio?*
- Zein uste duzu dela auzoko **HUTSUNE nagusia?** / *¿Cuál consideras que es la CARENCIA principal en el barrio?*
- Eta zeintzuk dira Hernanik dituen **BEHAR nagusiak?** / *¿Y cuales son las NECESIDADES principales existentes en Hernani?*

Gaur egun auzoan inguruan zer AZPIMARRATUKO zenuke? <i>¿Qué subrayarías de lo actualmente existente?</i>	Zein uste duzu dela auzoko HUTSUNE nagusia? <i>¿Cuál es la principal carencia?</i>
	<ul style="list-style-type: none"> Trafikoaren egoera / <i>Situación de tráfico</i> Auzoa utzita dagoela / <i>Sensación de que el barrio está dejado</i>
Zuk zein behar sumatzen duzu arlo honetan? <i>¿Qué necesidad sientes en este ámbito?</i>	
<ul style="list-style-type: none"> Trafikoa / <i>Tráfico</i> Oinezkoen segurtasuna / <i>Seguridad de peatones</i> Aparkaleku gabezia / <i>Falta de aparcamiento</i> Ikastolako sarrera-irteera orduetan sortzen diren trafiko pilaketak / <i>Los atascos que se generan en horarios de salida/entrada de la ikastola</i> Herrira igotzeko zailtasunak (igogailu edo eskaileren beharra) / <i>Dificultades para subir al pueblo (necesidad de ascensor o escaleras)</i> Hainbat kaleetan asfaltoaren egoera kaxkarra / <i>Situación complicada del asfaltado de algunas calles</i> 	
Eta Hernanin orokorrean? / <i>¿Y en Hernani en general?</i>	
<ul style="list-style-type: none"> Ikastola inguruko trafikoa / <i>Tráfico en los alrededores de la ikastola</i> Herrira igotzeko zailtasunak / <i>Dificultades para subir al pueblo</i> 	

3. PROPOSAMENAK / PROPUESTAS

Hausnarketaren ondoren, nahi izan duen herritar orok proposamenak luzatzeko tarte ireki da.

Al finalizar con la presentación, se le ha dado comienzo a la realización de propuestas.

Proposamenak / Propuestas
Herrira igotzeko eskailerak edo igogailua jarri / <i>Poner acensor o escaleras mecánicas para subir al pueblo</i>
Labaderotik beherako espaloia konpondu / <i>Arreglar la acera que baja desde el lavadero</i>
Gudari plazako zorua aldatu / <i>Cambiar el pavimento de la plaza Gudari</i>
Ezarritako zonalde gorriak errespetatzeko mekanismoak jarri / <i>Poner mecanismos para respetar las zonas rojas</i>

Jarraian aurreko prozesuan auzoan egin ziren proposamenak eta onartuak izan ez ziren arren aurten ere prozesuan txertatzea berretsi diren proposamenak / *Estas son las propuestas que fueron realizadas en el proceso del año anterior y que no habiendo sido priorizadas o elegidas han sido confirmadas para volver a incluirlas esta edición como propuestas:*

IAZKO proposamenak
Haurrentzako parkearen zorua berritu eta handitu / <i>Mejorar el suelo del parque infantil y ampliarlo</i>
Portu eta Geltoki arteko bidea argitu eta zorua berritu / <i>Iluminar y renovar el suelo entre Portu y la estación</i>
Portuko tunelean trafiko erregulatu / <i>Regular el tráfico en el túnel de Portu</i>
Espaloi bat sortu Tuneletik Lonja bitarteko tramuan / <i>Poner una acera en el tramo entre el tunel y Lonja</i>

Azken bi proposamen hauek direla eta duten larritasun eta urgentzia ikusita, hurrengo asteetan alternatiba posibleak aztertzeko bilera bat antolatzea erabaki da herritar eta udal ordezkari politiko eta teknikoaren artean. *Vista la urgencia e importancia de estas últimas dos propuestas, se decide convocar una reunión entre representantes políticos, personal técnico del Ayuntamiento y vecindario presente de Portu para estudiar alternativas a la situación de tráfico existente.*

4. HURRENGO URRATSAK / PROXIMOS PASOS

Proposamen guztiak amaitu ostean Aztikerreko dinamizatzailleak prozesu honen hurrengo fase eta urratsen berri eman du:

- ✓ Proposamenak egiteko **epea ekainaren 5ean bukatuko** da. Ordura arte, herritar orok proposamenak egiten jarraitzeko aukera izango du.
- ✓ Prozesu honetan jasotzen diren proposamen guztien **aurkezpen publikoa egingo da, ekainaren 8an**, arratsaldeko 18:30etan Udaletxean.
- ✓ **Ekainaren 16an** herritarrek egin dituzten proposamenak baloratzeko eta Udal Aurrekontuan zeintzuk txertatuko diren baloratzeko **irizpideen inguruko eztabaida** emango da. Saio hau nahi duen herritar ororentzat irekia izango da, eta Talde eragileko partaideak ere bertaratuko dira.
- ✓ Ondoren, **Udan, balorazio tekniko eta ekonomiko** egiteko tarteak izango dira.
- ✓ Irailetik aurrera, proposamen guztien artean 2017eko Udal Aurrekontuetan txertatuko ditugunak zeintzuk izango diren zehaztu beharko dugu saio irekien bitartez.

La dinamizadora de Aztiker ha aclarado los siguientes pasos de este proceso:

- ✓ *Los y las hernaniarras tendrán opción de realizar propuestas **hasta el 5 de junio**.*
- ✓ *Todas las propuestas recibidas serán presentadas en **una presentación pública el próximo 8 de junio**, a las 18:30 en el Ayuntamiento.*
- ✓ *El **16 de Junio** realizaremos el debate para decidir cuáles serán **los criterios para valorar cuáles de las propuestas** realizadas se incluirán en el presupuesto de 2016*
- ✓ *Después de la presentación, todas las propuestas quedarán en manos **del Ayuntamiento para realizar las valoraciones** técnicas y económicas correspondientes.*
- ✓ *A partir de setiembre realizaremos una segunda ronda de reuniones para decidir cuáles de las propuestas se incluirán en el Presupuesto Municipal.*

Saioan parte hartu izanagatik eskerrak emanez, bukatutzat eman da bilera maiatzaren 30ean, 20:00etan